

azpeitianzer?

udal aldizkaria

192. zenbakia

**BIHARKO BEHARREI
AURRE HARTZEN**

TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailletza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Urtarrilak 8, 15, 20, 22, 29, 30 eta 31

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Urtarrilak 6, 11, 16, 17, 18 eta 25

ARTETXE-BASTIDA

Urbitarate auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Urtarrilak 5, 12, 19, 23, 24 eta 26

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Urtarrilak 1, 2, 3, 7, 14 eta 28

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Urtarrilak 4, 9, 10, 13, 21 eta 27

ALE HONETAN ZER?

Adinekoak	3
Hitzarmena	6
Analisi prospektiboa	8

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala.
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Maketazioa eta testuak:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

**AZPEITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN
JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI
HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85
(ALKATETZA) TELEFONOAN.**

AZPEITIA EZAGUTZEN



**INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ,
AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO
DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU
AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU
AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!**



XVIII. mendeko egoera ekonomiko-ko ikusita Donostia eta Pasaia ziren Gipuzkoako merkatal gune garrantzitsuenak. Hala ere beste hiribilduetan ez zioten jarduera ekonomikoari uko egiten eta beraien egoera hobetzeko ahalegiak egiten zituzten.

Loiola (Azpeitia - Azkoitia) Gipuzkoako merkatal gune garrantzitsuena edo hiriburu bihurtu nahi zuten eta horretarako erreferentziatzeko pisu eta neurri ofizialak Loiolara (Azpeitia - Azkoitia barrutiari zenbaitetan ematen zitzaion izena) bertara eraman nahi zituzten.

Gipuzkoako Agiritegian gordeta zeuden merkataritzarako osagai ezinbestekoenaz jabetu nahi zuten (hiriburu bihurtzeko pauso garrantzitsu bat). Azpeitian bertan ere, pisu eta neurriekiko ardura zegoen eta Gipuzkoako Lurraldean zegoen aniztasuna kontutan hartuz, neurri ofizialak eta bateratuak izan zitzatela ahalegindu ziren.

AZPEITIKO ADINEKOEN EGOERA EZAGUTZEN

Zahartzen ari da gizartea, eta horrek erronka berri bat dakarkie administrazioei eta gizarte eragileei. Azpeitian, Baigera adinekoen elkarteak bazituen zenbait kezka: adinekoen pobrezia eta bakardade kasuak gora egiten ari ote ziren, adinekoek prestazio ekonomikoaren inguruko informaziorik ba ote zuten, eta abar. Hala, duela lau urte, Azpeitiko Udalak proiektu bat jarri zuen martxan elkarte horren laguntzarekin. Leire Goenaga Gizarte Zerbitzu eta zinegotziak azaldu duenez, alde batetik, 65 urtetik gorako herritarrek nola bizi diren jakin nahi zuen udalak; eta, beste alde batetik, adinekoak udaleko gizarte zerbitzuen berri izatea nahi du, eskura izan ditzaketen baliabide eta laguntzen berri izateko.

Adinekoen egoera ezagutzeko, 65 urtetik gorako artean ikerketa desberdinak egin dira. Horretarako, banan banako elkarrizketak egin dizkiete. Hain zuzen ere, 1.054 azpeitiarrek hartu dute parte guztira. Norbere etxean egin dira elkarrizketak gehienak, eta horrek zaurgarritasun egoerak detektatzeko aukera ere eman die ikertzaileei.

65-70 URTEKOAK

198 pertsonak hartu dute parte ikerketan, eta horietako %63k aurretik ez zuten inolako harremanik gizarte zerbitzuekin. Gizarte zerbitzuen erabiltzaile ez direnen artean, zerbitzu horri buruzko ezezagutza dagoe la ondorioztatu da, izan ere, %57k ez dituzte ezagutzen hark ematen

dituen zerbitzuak eta prestazioak; %10ek informazio eskasa dute; eta %33k, informazio nahikoa.

Egoera ekonomikoari dagokionez, %5ek esan dute nahiko larri heltzen direla hilabete amaierara, eta, nahiz eta kopurua txikia izan, prestazio ekonomikoaren inguruko informazioa helarazi zaie, bazterrean gera ez daitezten. Osasun arloan, inkestan parte hartu dutenen %3,5k soilik aitortu dute eguneroko zenbait jardura egiteko zailtasunak dituztela, eta horrek erakusten du adin horretako pertsonen bizi kalitate egokia dutela. Adinari dagozkion ajeak alde batera utzita, %9,6k esan dute osasun arazoak dituztela. Etxebizitzak ere, oro har, egokituta daude beren beharretara. %6,5k faltan sumatzen



dute igogailua, eta hori izan da gehien errepikatu den beharra.

Azpeitian bizi diren adinekoek paira dezaketen bakardade subjektiboa eta objektiboa aztertzea zen ikerketaren helburuetako bat. Bada, 65-70 urteko gehienek lehen eta bigarren mailako sare sozialen babesa dute; hau da, familiarena eta lagunena. Gehienek (%74k) esan dute ez direla bakarrik sentitzen, baina badira batzuetan bakardade sentsazioa izaten dutenak ere (%26); besteak beste, alarguntasunagatik edo beste herri batekoa izateagatik.

70-75 URTEKOAK

70-75 urteko 211 lagunek hartu dute parte ikerketan. Gizarte zerbitzuen ezagutzari dagokionez, erdia baino gehiago (%62) inoiz gizarte zerbitzue-

tara joan gabeak dira, eta joan direnak ere ez dira beti beraientzako zerbitzuren batengatik joan, inguru-ko baten ordezkari baizik.

Erretiroari lotutako pentsioa da gehienek prestazio iturri nagusia (%85,6), eta lautik hiru baino gehiago erraz iristen dira hilabete amaierara. Oso gutxi, %2k esan dute hilabete amaierara iritsi ezinda ibiltzen direla, eta %3k nahiko larri ibiltzen direla. %97ri inork ez die laguntzarik ematen. Jaso ez, baina eman bai. Aipagarria da %30ek bakarrik erantzun dutela ez diotela inori laguntzen; gainerakoek, dirutan ez izanda ere, elikagaien bidez edo etxean egindako lanen bidez laguntzen baitiete ingurukoei. Alokairuan, %2,5 bakarrik bizi dira, eta gainerakoak norbere etxean. %44k oztopo arkitektonikoak dituzte etxean, barruan edo kanpoan.

**“65 URTETIK GORAKO
HERRITARRAK NOLA BIZI DIREN
JAKIN NAHI IZAN DU UDALAK, ETA,
HORREZ GAIN, ADINEKOAK GIZARTE
ZERBITZUETARA GERTURATU
NAHI IZAN DITU”**

%85ek osasun ona dutela diote, hezurretako mina izaten duten arren eguneroko jardura eta ariketa fisikoa egitea ez dielako galarazten horrek. Azpeitiko 70-75 urteko biztanleak “aseak” sentitzen dira duten sare sozialarekin. Izan ere, %88k familiaz kanpoko sare soziala dute. Hala ere, %23 bakarrik sentitzen dira batzuetan, eta %3, berriz, beti.


75-80 URTEKOAK

Adin tarte horretako 308 pertsonak hartu dute parte ikerketan. Erdiek baino gehiagok (%63) ez dute izan kontakturik gizarte zerbitzuekin (ez eurek, ezta euren senideek ere). Giza eskubideez eta babes sistemez nolako ezagutza duten galdetuta, %15ek baino ez dute erantzun eza-gutza nahikoa dutenik. Beraz, ikerketak balio izan du haiei informazioa emateko ere.

Adin tarte horretakoen egoera, oro har, ekonomikoki ona dela ondorioztatu da. Ekonomikoki nahiko larri edo oso larri daudela %7k onartu dute. Beste zenbaitzuk zailtasunak dituzte gastu batzuri egiteko. Horiek, batik bat, aisialdian eta etxearen konponketan dute eragina; hain zuzen, diru arazo bat edo beste izanez gero, lehen murrizketa aisialdian egiten omen dute. Horrek hainbat ondorio izan ditzake, aisialdiak lotura estua duelako harreman sozialekin. Era berean, 75-80 urtekoen %12k dirua ematen diete senideei; %6k, berriz, jaso egiten dute.

Emakumeen zaugarritasuna ere agerian jarri du ikerketak. Lan merkatutik kanpoko lanak egiten zituztenez gehienetan, gaur egun diru sarrera txikiagoak dituzte. Senarra bizirik dagoen bitartean, haren pentsioa izaten dute etxeko diru sarrera nagusia; hura hiltzean, berriz, eskasagoa den alarguntasun pentsioa jasotzen dute.

Etxean zerbait faltan sumatzen ote duten galdetuta, %98,4k ezetz erantzun dute. Alabaina, %58,4k oztopo arkitektonikoak dituzte; esate baterako, egokitu gabeko komunak, etxe barruko koskak eta igogailu falta. Elkarriketatuen herenak esan du osasun arazoak dituela. Gaixotasuna izan ala ez, askok behar dute



**“LAU IKERKETA
EGIN DITUZTE,
ETA 65 URTETIK GORAKO
1.054 HERRITARREK
HARTU DUTE PARTE
GUZTIRA”**

laguntza eguneroko jardueretan. Laguntza informala da nagusi, eta bikote eta seme-alabek hartzen dute gehienbat laguntzaile rola.

%99k oso ontzat jo dute familiarekin duten harremana. Gizonezkoek emakumeek baino sare sozial zabalagoa dute familiaz kanpo. Hala ere, %20k bakardadea sentitzen dute. Arrazoen artean nagusiak alarguntasuna eta galera fisikoa dira.

80 URTETIK GORAKOAK

Gizarte zerbitzuen erabiltzaile ez diren 337 herritarrek hartu dute parte ikerketan. Elkarriketatuen %42,7 noiz edo noiz gizarte zerbitzuetan izan dira, eta %57,3, berriz, ez dira inoiz izan.

Elkarriketatutako gehienek adierazi dute ez daukatela arazorik gastu ekonomikoari aurre egiteko. %24,9, aldiz, zailtasun batzuekin iristen dira hilaren amaierara, eta %4,5, nahiko larri.

Nahiz eta badagoen inoren laguntzarik behar ez duen jendea, askok, nahiz eta osasun ona izan, mugak dituzte zenbait eginkizunetarako. Zailtasun edo muga gehienak etxeko lanetan identifikatu dira, %44,2k adierazi baitute gaizki moldatzen direla eta hirugarren baten laguntza behar dutela. Laguntza behar dutenen kasuan, aipatzekoa da gehiengo handi bati behar hori asetzen zaiola, baina badagoela kopuru bat (%7,44) laguntza behar eta jasotzen ez duena ere. Bestalde, aipagarria da laguntzarik behar ez dutenen %44,9k jaso egiten dutela. Horrek adierazten du adinekoak, oro har, ondo zainduta daudela.

80 urtetik gorakoen etxebizitzak egoera onean dira: argitasun, azpiegitura eta instalazio elektriko egokiak dituzte. Hala ere, zenbait kasutan, adinekoentzat oztopo izan daitezkeen oztopo arkitektonikoak ere ikusi dira ikerketan.



GIZARTE BEHARRAK AZTERTU ETA HORIEI EREDU BERRI BATEKIN ERANTZUTEKO AZTERKETA

Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako departamenduan Azpeitiko gizarte baliabide eta zerbitzuen inguruko hausnarketa eta azterketa prozesu bat abiarazteko hitzarmena sinatu dute. Tokiko arreta-ekosistema bat eredu berri bat sustatuz bultzatzea da izenpetutako dokumentuaren helburua; horretarako gizarte zerbitzuen eskaintza handituz eta behar berrietara egokituz. Hitzarmenaren sinaduraz gain, bilera batean partekatu dituzte bi erakundeetako ordezkariak udalerriko gizarte zerbitzuek egun dituzten erronkak, eta etorkizunera begira egin beharreko bideak nondik nora jo behar lukeen.

Bizi itxaropenak goranzko joera nabarmena du azken urteotan; bai Gipuzkoan eta baita Azpeitian ere. 2035. urte bitartean %7 haziko da

Azpeitiko populazioa ikerketen arabera, adinekoen kopurua, berriz, %20 haziko da. Beraz, 2031. urtean azpeitiarren ia laurdenak 65 urtetik gora izango ditu; 3.900 adineko baino gehiago izango dira, aurreikuspenen arabera. Mendekotasunari dagokionez, berriz, 2035. urtean ia 500 pertsona izango dira 80 urtetik gorako mendekoak; %38ko hazkundea emango da mendekotasun pertsonetan.

Horregatik, beharrezkoa da bi erakundeentzat gizarte-zerbitzuen eskaintza handitzea, bai lehen mailako arretan, baita bigarren mailakoan ere. Zaintza sistema eredu berrien beharra oraindik ere nabariagoa gelditu da azken hilabeteotako osasun alarma egoerakin, eta sortu nahi den eredu berri horren erdigunean zein oinarriak herritarren kalitatezko zain-

**“ZAINZA SISTEMA
EREDU BERRIEN BEHARRA
ORAINDIK ETA NABARIAGO
GELDITU DA ALARMA
EGOERAREN ONDORIOZ”**

tza izango da. Eredu horrek arreta dibertsifikatuagoa ahalbideratuko du, adinekoak beren familiekin eta inguru komunitarioarekin hobeto lotuz. Elkarlanaren hasieratik hori izan bada ere abiapuntu, Covid-19ak eragindako osasun krisia inflexio puntua izaten ari da mendekotasuna duten adinekoentzako etxeko eta egoitzako arreta ereduak sakontzeko.

Udala este Aldundiak beharrezkotzat jotzen dute bizitegi eredua alda-

HARTUTAKO KONPROMISOAK

Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak honako konpromisoak hartu dituzte jarduketako protokoloa sinatzean:

- 1-** Azpeitiko adinekoen biztanleriaren bilakaeraren aurreikuspenei eta kolektibo horren ostatu premiei buruzko diagnostikoa egingo da, abiatuntu gisa.
- 2-** Ekosistema bat bultzatzeko jarduketa plan bat adostuko da. Egungo hornidura eredua birformulatuko da; hurbiltasuna eta
- 3-** Egungo baliabideak adostuko den eredu berrira egokitzeko konpromisoa.
- 4-** Beharrezko diren baliabideen eraikuntza bultzatzea; egungo arreta sareak estaltzen ez dituen premiei erantzuteko.
- 5-** Baliabide horiek eraiki behar badira obrak finantzatu eta baliabideak kudeatzeko formula berriak aztertzea.

zaintzen jarraikortasuna bermatuko dituen eredu integratu eta soziosanitario berri bat sortzeko.

tzea eta berri baten alde egitea; non pertsonak ahal den neurrian etxe giroan bizitzea eta hartatzea izango den helburua. Hala, beren intimitate eta duintasuna errespetatuko dira eta pertsona bera eta haren babes eta zaintza premiak arretaren erdigunean jarriko dira.

Nagore Alkorta alkateak Gizarte Zerbitzuen arloan etorkizunean sortu litezkeen beharrak detektatu eta gaurtik horiei erantzuna emateko beharra azpimarratu nahi izan du: “Gaur egun ditugun gizarte zerbitzuetako baliabideek ozta-ozta erantzuten diete gaur egungo beharrei. Beraz, ezinbestekoa da etorkizuneko beharrei erantzuteko azterketa eta lanketak egitea”, adierazi du. Etorkizunerako erronkak definitzeko Azpeitia 2030 plan estrategikoa osatzean, tresna ga-

rrantzitsua izango dela ere gaineratu du. Bide horretan, gizarte zerbitzuetako eskumenak udalek eta aldundiak partekatzen dituztenez, lankidetzaren beharrezko tresna dela azpimarratu nahi izan du. “Herriar guztiek dute zainduak izateko eskubidea eta hori bermatzeko baliabideak eskaintzea dagokigu erakunde publikoari. Herriar guztien bizi kalitatea zaindu eta bermatu behar dugu eta horretarako arreta eredu berriak aztertzeke konpromisoa hartu dugu”.

Maite Peña, Gizarte Politiketako diputatuaren hitzetan jorratu beharreko bidea “argia” da: “Gipuzkoan aspaldi abiarazi genuen pertsona bakoitzaren behar eta premietara egokituko den eredu baten aldeko apustua, eta egun, COVID-19aren ondorioz bizi dugun egoerak, berre-

tsi egin du apustu hori”. Gipuzkoako gizarte zerbitzuak pertsona ardatz hartzen duen arreta-eredu baterantz egin behar du, eta hori bultzatzen jarraitzea “ezinbestekoa” dela gaineratu du diputatuak.

Beraz, hitzarmen honen sinadurarekin abiatzen den azterketak, lankidetzaren oinarri hartuta, egungo zerbitzuen eredua birformulatuko du, eredu integratzaileago baterantz bidean, arlo soziosanitarioa ere indartuz. Horregatik, eta diagnosi fase baten ondoren, beharrezkoak izan daitezkeen baliabide berrien eraikuntza sustatuko da, egun estaltzen ez diren premiei erantzuteko. Horrez gain, arreta-eredu dibertsifikatuago eta pertsonalizatuago bat eraikiko da, etxeko zaintza eta familia eta komunitate harremanak indartuko dituen.



2031KO AZPEITIARI BEGIRA

Populazioaren bizi itxaropena luzatzearekin batera, adinekoen kopurua gora doa, baita egoera zaugarrian eta ezintasunak jota dauden adinekoena ere. Gizartea zahartzeak inplikazio nabarmenak ditu gizarte zerbitzuen sistemarako; izan ere, beharrei erantzuteko baliabide informalak gutxituz doazen neurrian zerbitzu formalen esku hartzea areagotu egin behar da, eta zerbitzu horiek finantzatzeko zailtasunak izan daitezke.

Azpeitiko Udalak eta herriko eragile sozialek bideak ipini nahi dituzte horri aurre egiteko; horretarako, beharrezkotzat jo dute datorren hamarkadan Azpeitiko populazioak izan dezakeen bilakaera aztertzea eta, bilakaera horri lotuta, adinekoen hazkuntzari erantzuteko beharko diren gizarte zerbitzuen kopuruak kalkulatzeko.

SIIS ikerketa zentroari eskatu dio udalak azterketa hori. Hala, zentroak, alde batetik, kalkulu bat egin

du 2031. urtean Azpeitian autonomiaren arloko gizarte zerbitzuen beharra izan dezaketen adinekoena; populazioaren proiektzio bat egin du; mendekotasun egoerek datorren hamarkadan izango duten prebalentzia iragarri du; eta laguntza informalak datorren hamarkadan izango duen bilakaera aztertu. Beste alde batetik, gizarte zerbitzuen beharrean egongo diren adineko azpeitiarrei eskaini beharreko zerbitzuen kalkulua egin du, eskaera tasari eta arreta ereduak dagozkien agertokiak planteatuta.

NOLAKOA IZANGO DA AZPEITIKO POPULAZIOA 2031N?

Ikerketaren arabera, kalkulatzeko dute Azpeitiak 15.894 biztanle izango dituela 2031. urtean; hau da, gaur egun baino 1.108 pertsona gehiago. Zaharren eta oso zaharren kopurua beste biztanleena baino gehiago igoko da, eta adinekoek pisu handiagoa izango dute populazio osoan. Emakume eta gizonen arteko oreka orain bezalatsukoa izango da (%50,14 emakumeak izango dira).

Populazioa zahartzearen ondorioz, biztanleen erdibideko adina 2018an 44 urtekoa dena 46 urtekoa bilakatu da, eta ekonomikoki aktiboa ez den populazioaren proportzioa %59tik %61era igoko da. Ugalkortasun indizeak bilakaera ona erakusten dute: ugaltze tasek gora egingo dute, eta ama izateko batez beste adina zertxobait jaitsiko da, gaur egungo 33,5 urteetatik 32,7 urtera.

Hilkortasun indizeek ere bilakae-ra ona erakusten dute: proiektzioa egiteko erabilitako aurreikuspenen arabera, populazioaren bizi itxaropena igo egingo da (gizonetan emakumeetan baino gehiago). Gizonen bizi itxaropena 83,8 urtekoa izatea espero dute 2031. urtean, eta emakumeena 88,9 urtekoa. Gainera, jaioberrien eta haurren hilkortasun tasak orain bezala apalak izango dira. Azkenik, helduen hilkortasun goiztiarrak nabarmen egingo du hobera: 2018an, mila biztanleko 49,9 heriotzetan kokatzen da; 2031n mila biztanleko 35,7ra murriztuko dela espero dute.

Populazio mugimenduari dagokionez, aztertutako epean jaiotza tasa gordina heriotza tasa baino gehiago igoko dela espero dute, eta, nahiz eta hamarkada osoan populazioaren hazkuntza naturalak negatiboa

izaten jarraituko duen, urtetik urtera txikituz joango da naturalki galtzen den biztanle kopuru hori.

Migrazio mugimenduei dagokienez, planteatu diren bilakaera hipotesiak betetzen badira, populazioaren urte-tik urterako hazkuntza erreala %0,5-0,6koa izan daiteke.

2031N, ZENBAT HERRITARREK IZANGO DUTE MENDEKOTASUN ONARTUA?


Azpeitian, 2018. urtearen amaieran, 596 lagunek dute onartuta mendekotasun mailaren bat. Horietatik 232k, hau da, %40 inguruk, mendekotasun arina dute (1. gradukoa), 211k (%35,4k) mendekotasun larria (2. gradukoa) eta 146k, ia laurdenak, menpekotasun handia (3. gradukoa). Mendekotasun maila guztietan, prebalentzia altuagoa da

emakumeen artean gizonen artean baino.

Mikrosimulazioaren metodologia erabili du SIISeK 2031rako iragarpenak egiteko. Halako ikerketetan, milaka lagunren datu longitudinaletan oinarrituriko eredu estatistikoak garatzen dituzte, eta, menpekotasun sortzaileak izan daitezkeen hainbat gaixotasunen trantsizio probabilitateetan oinarrituz, laginako indibiduo bakoitzak gaitz horiek garatzeko eta mendekotasun maila desberdinak pairatzeko duen arriskua kalkulatzeko dute.

Planteatu diren hipotesiekin, uste dute 691 adineko izango direla 2031. urterako mendekotasun arriskuan edo mendekotasunean, hau da, gaur egun baino 169 lagun gehiago (%32,5). Hain zuzen ere, kalkulatu dute mendekotasun arina dutenen

Biztanle proiektzioa: populazio piramidearen bilakaera. Azpeitia, 2018 eta 2031




Iturria: Geuk egina.

Menpekotasuna duten adinekoak, sexua eta adin talde handitan. Azpeitia, 2018/12/31


Sexua

■ Gizon ■ Emakume



Adina

■ 65-79 ■ 80+



Iturria: Geuk egina.

prebalentzia ia ehuneko bat igo daitekeela, gaur egun 65 urtetik gorako biztanleen %5,8k izatetik %6,7raino. Mendekotasun larriaren eta handiaren prebalentziak apenas aldatzen diren. 2031 urtean, menpekotasunen bat duten hamar adinekotik ia lauk mendekotasun arina izango dute, hamarretik hiruk mendekotasun larria, eta laurdena baino zertxobait gutxiagok mendekotasun handia.

ZENBATEKO PISUA IZANGO DU LAGUNTZA INFORMALAK?

2031. urtean Azpeitian 65 urtetik gorako 3.914 lagun biziko dira, eta,


aipatu bezala, horietatik 691 menpekotasunean. Bakarrik bizi den adinekoen proportzioak mende hasieratik 2011. urtea bitartean izandako joera berbera izaten badu, 2031. urtean bakarrik biziko dira 1.452 adineko, hau da, 65 urtetik gorako guztien %37,1.

Laguntza informalari dagokionez, 2014. urtean eginiko ikerketan, eguneroko jardueretarako beste norbaiten laguntza behar zutela adierazten zutenetatik (417 adineko), 303k jasotzen zuten –hau da, %72,3k– familiako norbaiten laguntza informala, gizarte zerbitzuren batekin konbinatuta, ala bakarrik.

Zaila da zenbait faktorek –esate baterako, joera demografikoak eta emakumeen laneratzeak– nolako eragina izan dezakeen kalkulatzeko zaintza informala jasoko duen pertsona kopuruan. Alabaina, demografiari bakarrik begiratuta –etorkizunean adineko populazioa azkarrago haziko da zaintzeko adinean daudenena baino, familiak gero eta txikiagoak izango dira...–, ageri da laguntza informala %18 gutxitu daitekeela datozen 10 urteetan.

Ikerketa honetan, SIISeK iragarri du datorren hamarkadan %20 gutxituko dela zaintza informala jasotzen

Laguntza informalaren prebalentzia, eguneroko jardueretarako zailtasunak dituzten adinekoen artean. Azpeitia, 2014



■ Familiako laguntza soilik
■ Familiako laguntza eta zerbitzu publikoena
■ Familiako laguntza eta laguntza pribatua

■ Beste zaintza mota batzuek

Iturria: Azpeitiko Premia Sozialei buruzko inkesta (2014)

2031erako estimatzen diren plaza/erabiltzaileak, eskaera eta arreta-eredu eszenario desberdinetan

Eskaera-tasa	0. Gaur egungo distribuzioa		1. Komunitarioa, prestazioetan oinarritua		2. Komunitarioa, zerbitzuetan oinarritua		3. Instituzionala	
	A	B	A	B	A	B	A	B
Adinekoentzako etxebizitzak (1.9.3/4)	23	24	11	11	11	11	42	43
Egoitzak (2.4.1)	108	111	101	103	101	103	165	169
EEL (1.2)	117	120	135	139	221	226	148	151
Eguneko zerbitzua (1.7) ⁽¹⁾	11	11	26	26	45	46	15	15
Eguneko zentroa (2.2.1)	45	46	66	68	112	115	59	60
LPPE (3.1.1)	180	184	270	277	121	124	161	165
FIZPE (3.1.2)	213	219	78	80	78	80	88	91

Iturria: Geuk egina. Parentesi artean, Zerbitzu-zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan, zerbitzu mota bakoitzari dagokion kodea. ⁽¹⁾ Udal Mailako eguneko zerbitzuen erabiltzaile kopurua zehazteko, estimatutako arrisku egoerako pertsonak eta 1 graduako menpekotasuna dutenen %60 egotzi zaizkio.

duten adinekoen kopurua. Hori beteko balitz, hau da, laguntza informalaren eskuragarritasuna %20 jaitziko balitz, eta beherakada hori adineko talde guztietan uniformeki aplikatu balitz, beharra duten adinekoen %57,8ri iritsiko litzaioke laguntza informala 2031n.

ADINEKOENTZAKO GIZARTE ZERBITZUEN ZENBATEKESKAERA EGONGO DA?

2031. urtean beharrean egon daitekeen populazioa zehaztuta, gizarte zerbitzuak zenbatek eskatuko dituzten eta zer-nolako zerbitzu mota emango zaien zehaztu du ikerketak. Izan ere, alde batetik, zerbitzuak jasotzeko eskubidea duen orok ez du eskatzen, eta, bestalde, behar berei desberdin erantzun dakieke, hau da, zerbitzu sorta edo konbinazio desberdinekin.

Etorkizunean arreta nola eman, agertoki bat baino gehiago planteatu dira ikerketan: zehazki, zortzi, lau arreta eredu eta bi eskaera tasa konbinatuz lortzen direnak:

Eskaera tasari dagokionez, bi hipotesi planteatzen dira:

- Gaur egungo mendekotasun mailaren arabera eskaera tasak bere horretan jarraituko du 2031. urtean (mendekotasun arina dutenen %77,8k, mendekotasun larria dutenen %91,9k eta mendekotasun handia dutenen %96,5k eskatuko dute).
- Eskaera tasa mendekotasun arina dutenen %80ra, mendekotasun larria dutenen %95era eta menpekotasun handia dutenen %98ra iritsiko da 2031. urtean.

Arreta ereduak dagokienez, lau agertoki planteatzen dira:

- Gaur egungo eredu. Gaur egun adineko mendekoei eskaintzen zaien zerbitzuen konbinazio bera;
- Eredu komunitarioa, prestazioetan oinarritua. Arreta komunitarioa lehenesten duen eredu, eta etxean dauden pertsonentzat prestazio ekonomikoak lehenesten dituen, zerbitzuen aldean;

- Eredu komunitarioa, zerbitzuetan oinarritua. Arreta komunitarioa lehenesten duen eredu, eta etxean daudenentzako zerbitzuak lehenesten dituen, prestazio ekonomiko aldean;
- Eredu instituzionala. Egoitza arreta lehenesten duen eredu, zerbitzu eta prestazio ekonomiko aldean.

Biztanle proiektzioak kontuan hartuz, taula honetan datoz 2031. urterako kalkulatzeko diren plaza eta erabiltzaile kopuruak.

2018ko datuen arabera, mendeko adinekoen %86,7k zaintza zerbitzuren bat jasotzen dute, hau da, egoitza zerbitzua, eguneko zaintza, etxez etxeko laguntza edo mendekotasunerako prestazio ekonomikoetako bat (familia ingurune zainketarako edo zaintzaile profesional bat kontratatzea). Bestalde, %1,8k zerbitzu osagarriak bakarrik jasotzen dituzte; hau da, laguntza teknikoak, zaintzaileen atsedenerako egonaldi laburrak, tutorretza zerbitzua edo kotizazio gabeko pentsioak.



MADALEN SAIZARBITORIA

SIISeko ikerlaria

“IRABAZI DITUGUN URTEEN ZATI HANDI BAT MENDEKOTASUNEAN PASATZEN DUGU”

Nazioartean eginiko hainbat ikerketek erakusten dute, bizi itxaropena luzatzearekin batera, gaixotasun kronikoekin eta haien ondorioz sorturiko autonomia arazoekin igarotzen den urte kopurua handitu egiten dela. Egoera horrek 2031n Azpeitian eragin ditzakeen ondorioak aztertu ditu SIISen txostenak.

Ikerketan ondorioztatu duzueenez, 2031. urtean 1.108 lagun gehiago biziko dira Azpeitian. Nabarmentzekoa da adinekoen hazkundera gainerako biztanleena baino handiagoa izango dela, eta, horri lotuta, mendekotasuna dutenen kopuruak ere gora egingo duela. Zer iragar daiteke alde horretatik?

Mendekotasuna ezgaitasunei eta osasun arazo kronikoei lotuta dagoenez, adinean aurrera joan ahala, arazo horiek ugaritu egin ohi dira, eta mendekotasunaren prebalentzia handitu egiten da. Oro har, adinekoen kopuruak gora

egiten duenean –oso adinduak diren kopuruak bereziki–, espero daiteke mendekotasunen bat duten pertsonen kopuruak ere gora egitea.

Azpeitiko kasuan, zehazki, haxe iragartzen dugu: batetik, adineko gazteen artean (65-79 urtekoen artean) mendekotasunaren prebalentzia murriztu egingo da, gizonen artean bereziki, bizimodu osasuntsuago baten ondorioz: kirol gehiago, elikadura hobea, erretzaile gutxiago, eta abar. Bestetik, 80 urtetik gorakoen artean, menpekotasun arinaren prebalen-

tzia igo egingo da, mendekotasun egoerak atzeratzearen ondorioz; eta mendekotasun larriaren eta handiaren prebalentziek orain bezalatsu jarraituko dute.

Txostenean aipatzen den kontuetako bat da emakumeek prebalentzia handiagoa dutela mendekotasun maila guztietan. Zein izan daiteke horren azalpena?

Nazioartean eginiko hainbat ikerketak erakusten dute, bizi itxaropena luzatzearekin batera, gaixotasun kronikoekin eta haien ondorioz sorturiko autonomia ara-

zoekin igarotzen den urte kopurua handitu egiten dela. Alegia, gaur egun, duela hamarkada batzuk baino urte gehiago bizi gara, baina irabazi ditugun urteen zati handi bat mendekotasunean pasatzen dugu. Euskadin, emakumeak gizonak baino bost urte inguru gehiago bizi dira batez beste eta, ondorioz, mendekotasunean prebalentzia ere handiagoa da haien artean.

Diozue zaila dela igartzea laguntza informalak nolako joera izango duen. Sustatu egin behar da laguntza informala mendekotasuna dutenei arreta emateko?

Ikerketan ez da horren inguruko iritzirik ematen, laguntza horrek izango duen bilakaeraren inguruko hipotesiak planteatzen dira soilik. Egia da, aldi berean, gizarte politikek eta, haien barnean, gizarte zerbitzuen inguruan hartzen diren erabakiek baldintzatu egin dezaketela bilakaera hori. Adibidez, laguntza zerbitzu publikoen estaldura edo finantzaketa murriztu egiten denean, senideek eman beharreko laguntza handitu egiten da derrigor.

Azken hamarkadetan, hainbat herrialdetan (baita erkidegoan ere) familia inguruneke zaintzaileak konpentsatzeko sorturiko prestazio ekonomikoek sustatu egiten dute laguntza informal hori. Aldi berean, tranpa moduko bat ere badira, izan ere, senitartekoen eta bereziki emakumeen gain uzten dute zaintza lana, lan horren kostua guztiz ordaindu gabe gelditzen da; gainera, zaintzaren egokitasunari dagokionez, ez dute zerbitzu publikoei ezartzen zaien kontrolik. Nazioartean, hainbat begiralek kritikatu izan dituzte politika horiek, zaintzaren ardura berriz ere familien bizkar jartzen dutelako,

eta horrek, batik bat emakumeei eragiten dielako, lan ezkutuarekin eta saritu gabekoarekin haien kontrako desoreka areagotuz. Beraz, askok nahiz eta ezinbesteko ikusten duten zaintza informala sustatzea ongizate sistemen jasagarritasuna bermatzeko eta onartuz zaintzaile askok euren borondatez ematen dutela zaintza hori, tentuz ibili behar da politika horien albo ondorio kaltegarriak ekiditeko.

**“LAGUNTZA ZERBITZU
PUBLIKOEN ESTALDURA EDO
FINANTZAKETA MURRIZTU
EGITEN DENEAN, SENIDEAK EMAN
BEHARREKO LAGUNTZA HANDITU
EGITEN DA DERRIGOR”**

Gizarte zerbitzuen beharrean egongo diren adineko azpeitiarrei eskaini beharreko gizarte zerbitzuen kopuruaren kalkulua ere egin duzue, eta lau arreta eredu proposatu dituzue. Nondik nora doaz joerak?

Beharrian jakin batzuei era desberdinean erantzun dakieke, eskuragarri dauden baliabideak nolakoak diren. Mendekotasun maila handia izateak ez du esan nahi derrigor pertsona horiek egoitzetan artatu behar direnik. Etxeetan ere eman daiteke arreta egokia, baina, noski, horrek eskatuko luke nabarmen egitea etxeko laguntza bezalako zerbitzu komunitarioen alde, bai politiketan eta bai dirutan ere, sarritan mendekotasun handia duten pertsonak etxean artatzea garestiago baita egoitzak ordaintzea baino.

2006an Espainiako Gobernuaren mendekotasun legeak zaintza informala eta laguntza pertsonala ordaintzeko prestazio ekonomikoak sortu zituenetik, esan daiteke desoreka bat sortu dela dirulaguntza horien alde, erkidegoan behintzat. Jende askok nahiago du diru bat jaso (sarritan, gainera, zertan xahutzen den justifikatu beharrik izan gabe), parte batean behintzat ordaindu egin beharko duen zerbitzu bat jasotzea baino (gogoratu behar da gizarte zerbitzu gehienak ez direla doakoak erabiltzaileentzat). Azpeitian, zehazki, autonomiaren arloko zerbitzuren bat eskatzen duten adinekoen erdia inguruk dirulaguntza horietako bat soilik jasotzen dute.

Ikerlanak, etorkizunari begira, zenbait arreta eredu planteatzen ditu, horien artean gaur egungo eredu jarraitzea, baina baita zerbitzuei —eta zehazki etxean laguntza emateko zerbitzuei— garrantzi handiagoa emango dien eredu batera aldatzea ere.

2018ko datuen arabera, mendeko adinekoen %86,7k zaintza zerbitzuren bat jasotzen dute Azpeitian. Zer esango zenuke kopuru horri buruz?

Gizarte zerbitzuetako 12/2008 Legearen izpiritua unibertsaltasuna lortzea den arren, kontuan izan behar da edozein politika publikotan izaten dela eskubidea izan arren eskaerarik egiten ez duen pertsona kopuru bat. Hori aintzat hartuta, esan daiteke lortzen den estaldura handia ez bada nabarmentzekoa dela. Beste kontu bat da eskaintzen diren zerbitzuen intentsitatea zenbatekoa den, esan bezala, estalduraren parte handi bat dirulaguntza bidez ematen baita, eta Familia Inguruneke Zaintzetarako Prestazioaren kasuan, ematen diren kopuruak ere nahiko murrizak baitira.



Osasun alarma ezarri zenetik adinekoek bizi duten egoeraz kezkatuta, elkarlanean hasi dira Azpeitiko Udala, Izarraitz Lanbide Heziketa II eta anbulatorioa. Azaroan, aurkeztu zuten proiektua; herriko 70 urtetik gora adinekoen artean galdetegia egin dute bizi duten egoera aztertu eta hartu daitezkeen neurriak azterketzeko helburuarekin. Deiak eginda, diagnostikoa egin eta beharrei erantzuteko plangintza egitea izango da hurrengo erronka.

Covid-19aren pandemiak asko aldatu du herritarren bizitza. Martxoan, osasun alarma egoera ezarri zenetik, hilabete gogorak izaten ari dira herritarrentzat; bereziki adinekoentzat. Hilabeteetan luzatzen ari den egoera da, eta adinekoek bizi duten egoera

aztertu eta bizi baldintza mantentzeko helburuarekin, datozen hilabeteetara aurre elkarlanean erantzuteko proiektuan buru berrari ari dira eragileak.

Osasun alarma ezarri zenetik egoera horrek herritarren artean eragindako arazo eta gabeziei erantzuteko etengabeko lanean ari da udala. Hilabete guzti hauetan herritar asko eta asko dira gaizki pasatzen ari direnak: "Pandemiak herritar askoren bizi kalitatean eragin handia izan du; bai ekonomikoki, bai sozialki, bai fisikoki eta emozionalki", adierazi du Nagore Alkorta alkateak.

Bereziki kezka sortzen die herriko adinekoen eta patologia jakin batzuk dituzten herritarren egoerak: "Alarma egoeraren hasieran, adinekoei ba-

besteko eskatu genien, etxean gelditzeko, eta herritar boluntario sarearen bidez deitu eta zituzten beharrei erantzuten saiatu ginen. Oraingoan ere babesten segitzeko deia egiten diegu, baina egoera luzatzen doan heinean, beren osasuna eta ongizatea zaindu eta bizi kalitatea bermatzeko moduak aurkitu behar ditugu. Egunerokoan etxetik irten eta beren osasun fisikoa eta mentala zaindu eta sozializatzeko modu seguruak bermatu behar dizkiegu, pandemia honetatik guztiok eta elkarrekin osuntsu irteteko", gaineratu du.

LANKIDETZA KOMUNITARIOA

Lanketa berri honetan, Izarraitz Lanbide Heziketako Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta



**“EGUNEROKOAN
ETXETIK IRTEN ETA BEREN
OSASUN FISIKOA ETA MENTALA
ZAINDU ETA SOZIALIZATZEKO
MODU SEGURUAK
BERMATU NAHI ZAIZKIE
ADINEKOEI”**

heziketa zikloko ikasle eta irakasleak eta anbulatorioko ordezkariak ezinbesteko pieza dira. Hala, eragile guztien artean galdetegi bat prestatu zuten herriko adinekoen berri jasotzeko. Galdetegiaren bidez beren osasunaren, bizi ohituren eta ohitura aldaketan inguruan, dituzten harreman sozialez, egoera honek sortzen dizkieten sentsazio eta sentimenduez, dituzten beharrez.... galdetu zaie. Deiak Izarraitz Lanbide Heziketako 60 ikasle eta zazpi irakaslek egin dituzte. Guztira 2.200 herritar ingururu deitu zaie.

Behin egoera ezagututa, sortzen diren beharrei erantzuteko baliabideak egokitu edo berriak sortzeko konpromisoa du udalak. Izarraitz Lanbide Heziketako arduradunak ere, aurrera begira elkarlanean jarraitu eta adinekoen beharrei erantzuteko bidelagun izaten jarraitzeko prest dira.

Nahia Porras Gabilondo eta Joseba Beristain Murilo *Mendekotasun* egoeran dauden *pertsonentzako* arreta formakuntza profesionaleko bigarren mailako ikasleak dira. Iñigo Azkue irakaslearen irakasgaiari, Azpeitiko Udalarekin elkarlanean sortutako proiektu komunitarioan parte hartu dute. Guztira 60 ikasle eta zazpi irakasle aritu dira herriko 70 urte baino gehiagoko herriko adinekoei deitzen.

Bi ikasleen arabera “entretengarria eta atsegina” izan da adinekoei deitzea: “Gustura sentitu naiz adinekoekin hitz egitean. Beraiek ere beren egoeraren berri emateko gogoz zeudela ikusi dugu”, adierazi du Porrasek. Sumatu dutenaren arabera, asko aladatu da adinekoen bizitza martxotik gaur arte: “Orokorrean asko aldatu zaie bizitza; gutxiago iriterten dute kalera eta askok beldurrez iriterten dute, gainera”, zehaztu dute.

Izarraitz Lanbide Heziketako 2016. urtean hasi ziren *Mendekotasun* egoeran dauden pertsonen arreta erdi mailako zikloa eskaintzen eta hasi berri den ikasturtean *Gizarteratzeko Goi Mailako Heziketa Zikloa* eskaintzeari ekin berri diote. Eduardo Sudupe zuzendariaren hitzetan, ikasle eta irakasleentzako “aukera pare-

Lehen deiak urduri eta eginbeharreko galdetegiari begiratu egin bazituzten ere, ondoren lasai aritu dira adinekoekin hizketan: “Lehen deiak egitea zailagoa izan zen. Lehen bi deiak eginda, ondoren gustura artu gara”, azpimarratu dute. Orokorrean, harrera “oso ona” izan dute; batzuk galdetegi erantzuten zuten, baina tokatu zaizkie beraien kontu pertsonalagoak kontatzeko beharra zuten adinekoak ere. Horrelakoetan, entzun egin diete, babestu.

Aberasgarria egin zaio Beristaini herritarren kezken berri jakitea: “Nola sentitzen diren beraien ahotik entzutea, dituzten kezka eta beldurrak gurekin elkarbanatzea oso interesgarria iruditu zait”.

Biak ala biak prest dira, aurrera begira behar bada proiektuan esku bat botatzeko.

gabea” eta “ezinbesteko trebakuntza” dela proiektua nabarmendu du.

Iñigo Azkue ikastetxeko Marketin arduradun eta arlo horretako zikloko irakasleak ikasleen jarrera nabarmendu nahi izan du: “Ikasleek gogoz hartu dute proiektua, jarrera baikor eta partehartzailea izan dute”.

Urte berri on!

